

Abenduaren igandea 22an



2013/12/20 11.3C

Zerbitzuak Noaua! Hemeroteka Argazkitegia Publizitate tarifak

Noaua!! albisteak

55 babarrun ekoizle eta 19 sagardo ekoizle lehian, igandeko azokan

[2013-12-20]

Marka guztiak hautsi ditu aurtengo Santo Tomas Azokak. Inoizko parte hartze handiena izan dute, igandean ospatuko diren babarrun eta sagardo txapelketek. 55 babarrun ekoizle eta 19 sagardo ekoizle eman dute izena, atzora arte zabalik zegoen epearen barruan. Igandean jakingo da epaimahaiak zer erabaki duen. Momentuz dakiguna, lehia estua izango dela eta amaieran, sei ekoizle sarituko dituztela. Hiruna ekoizle, txapelketa bakoitzean. Irabazleak ez dira esku hutsik joango:

1. Sarituarentzat: 150 euro+tapela.
2. Sarituarentzat: 90 euro.
3. Sarituarentzat: 50 euro.

PERRATZE ERAKUSTALDIA, IXABEL AGIRRESAROBAREN EMANALDIA... NOBEDADEEN ARTEAN

Babarrun eta sagardo txapelketetako sari banaketa igande eguerdian ospatuko da frontoian. Baina lehenago zabalduko da Santo Tomas Azoka. Goizeko 11:00ak alderako hurbildu zaitezte frontoi eta Dema plaza ingurura, NOAUA! Kultur Elkartek nobedadeekin hartuko zaituzte eta.

Haurrak izango dira aurtengo protagonistetako batzuk. Etxeko txikienen zain izango da Ixabel Agirresarobe, 11:30etatik aurrera Dema plazan. NOAUA!ri aurreratu dioenez, Santo Tomas egunean giroturiko istorioak dakartza usurbildarrak. "Ezagutzen dut Donostiako Tomaxa izeneko amon bat, oso maitea dudana. Hark kontatzen dit urteetan Santo Tomasetan nola ibili den. Berak han gertatutakoak eta berari kontatu dizkioten kontuak ekarriko ditut Usurbila", aurreratu du Agirresarobek.

Berrikuntza gehiago. Gonbidatu berezi bat izango dugu frontoian, erakustaldi bat egitera dator. Joxe Aizpurua, Asteasuko Olarreaga Goiko baserrikoa, Bizkarreko idi pare perratze lanetan jardungo da azokan. Zereginotarako materiala ere erakusgai jarriko du.

EPERRA IKASTOLA LAGUNTZEKO ELKARTASUN KANPAINAREN AMAIERA

Sohütako (Zuberoa) Eperra ikastola laguntzeko, azken asteotan Zuberoako produktuz hornituriko otarren salmenta bideratu dute Nafartarrak taldekoek. Usurbildarren aldetik jasotako laguntzaren berri emango dute, igandeko Santo Tomas Azokan. Nafartarrak taldekoek kantu-jira berezia antolatu dute gainera, Kantu Taldekoekin elkarlanean.

Eta hau guztia gutxi ez eta, jan edanik ez da faltako noski; taloak, gaztainak, sagardoa... Hitz gutxitan, igandean azokara etorri eta gozatu!

Abenduak 22, igandea

Goizean zehar:

- Jan edana; sagardoa, gaztainak, taloak, pintxoak dastatzeko aukera.
- NOAUA!ko postua: produktuen salmenta eta bazkidetza egiteko aukera.
- Perratze lanen erakustaldia.

11:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saio Dema plazan.

12:00 Santo Tomasetako kantu-jira.

12:30 "Senideon besarkada herritarrei" ekitaldia Sutegin.

Ondoren, Nafartarrak taldekoen ekitaldia.

Gero, sagardo eta babarrun txapelketetako sari banaketa.



Abendua 2013

As	As	As	Os	Os	La	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Zorion Agurrak



Zorionak Peru!!! Azaroaren 27an urte bat egin zenuen. Eñaut eta zure famili guztiaren partez muxu potolo bat.



Usurbilgo baserriak eta baserritarrak

Usurbilgo ondarea
ezagutzen

Bisitari kopurua

0201250

Zabaldu:  Twitter  Facebook  Zabaldu  Bildu  Del.icio.us  Aupatu

Izena: Posta elektronikoa:

Mezua:

Copyright © 2012 . Noaua!! Kultur Elkartea
Bordaberi 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 erredakzioa@noaua.com

